



GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDE ARTEKO ORGANOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

EGUNA: 2015eko urriaren 26a

TOKIA: EUSKO JAURLARITZAREN LAKUAKO EGOITZA (Lakua II, 6. aretoa)

HASIERA-ORDUA: 16:04

AMAIERA-ORDUA: 16:47

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Angel Toña Guenaga jauna, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua.

KIDEAK:

- *Eusko Jaurlaritzaren ordezkari:*

- Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Politiketako sailburuordea.

- Jose Luis Madrazo Juanes jauna, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.

- Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

- Hernando Lacalle Edeso jauna, Aurrekontuen zuzendaria (Ekonomia eta Aurrekontuen sailburuorde Pedro M^a Hernando Arranz jauna ordezkatzan du).

- Estefanía Gordo Ríos andrea, Lan Harremanen zuzendaria (Herri Administrazio eta Justiziako sailburuorde Andrés Zearreta Otazua jauna ordezkatzan du).

- *Foru-aldundietako ordezkari:*

- Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatua.

- Isabel Sánchez Robles andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua.
- Maite Peña López andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako foru-diputatua.

Era berean, bileran daude foru-diputazioetako ordezkarien ordezkotzat jotako pertsonak; hots:

- Jose Luis Alonso Quilchano jauna, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Menpekotasunaren Arretarako zuzendari nagusia.
- Carlos Alfonso Artola jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari:

- D. Josu Bergara López. Sestaoko alkatea.
- María Natividad López de Munáin Alzola andrea. Burgeluko alkatea.
- Ma^a Jose Blanco Gaviero andrea, Portugaleteko zinegotzia.

Gonbidatu gisa dago Mar Zabala Mardaras andrea, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendari nagusia.

GAI-ZERREDA

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea (2015/05/14).
2. Gizarte Zerbitzuen Plan estrategikoari buruzko nahitaezko txostena ematea.
3. Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
4. Informazioa ematea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legeaz eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaz.
5. Galderak eta eskaerak.

Aipatutako pertsonak bertaratuta, hasiera eman zaio bilerari 16:04an.

Angel Toña jaunak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoko presidentea izanik, ongietorria egin die bertaratuei, eta kontuan hartuta Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan kide berriak sartu direla, aurkeztu egin ditu.

Jarraian, gai-zerrendan jasotako kontuak jorratzeari ekin zaio.

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea (2015/05/14).

2015eko maiatzaren 14ko bileraren akta onartu dute Erakunde arteko Organoko egungo kideek, zeinak orduan ere baitziren organo horretako kide.

2. Gizarte Zerbitzuen Plan estrategikoari buruzko nahitaezko txostena ematea.

Angel Toña jaunak hitza hartu du, eta esan legegintzaldi honetako 18 gobernu-planean artean Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko hau dela onartu gabe dagoen bakarra.

Ondoren, hitza eman dio Lide Amilibia andreari, zeinak plana deskribatu baitu, eta honako hauek azaldu:

- Planaren xedea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) finkatzea da, eta sistema orokortzearen alde egitea.

- Planak zenbait bloke ditu:

- 1- Beharren diagnostikoa (GZESren baliabide-sarearen egoera; sarearen bilakaera; etorkizuneko eskaria eta beharra baldintza ditzaketen faktoreak; GZESk finkatzeko dauzkan erroka nagusiak).

GZESaren xedea eta ikuspegia, planaren ardatz eta helburu estrategikoak eta ardatz eta helburu estrategiko bakoitzari dagozkion ekintzen xehetasuna, ekintza bakoitzari buruz honako hauek aipatuta: lehentasun-maila, ekintza gauzatu edo bideratu behar duen erakundea, lehentasunezko zer elementuri erantzuten dion eta jarraipena edo ebaluazioa egiteko adierazleak.

- 3- EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Oroitidazki Ekonomikoa: aldeko irizpena izan zuten Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak 2014ko abenduaren 19an egindako bileran, prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretuarekin batera. Planaren mamia dira.

4- Plana koordinatzeko, dinamizatzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta eguneratzeko finkatu den modua.

Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak —organo nagusia denez— eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak egingo dituzte plana koordinatzeko, dinamizatzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta eguneratzeko lanak.

Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak zuzenduko du prozesua, zeina Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak bideratu eta sustatuko baitu, eta behar diren txosten eta/edo eragiketa edo azpieragiketa estatistikoak egingo ditu.

-Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa da X. legegintzaldi honetako gobernu-plan estrategikoetako bat, eta, beraz, foru-aldundien eta EUDelen iritzien mende jartzeaz gain, Lehendakaritzaren eta Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomiako eta Aurrekontuetako zuzendaritzek irizpena eman behar dute.

Plana uztailaren 17an bidali zitzaien foru-aldundiei eta EUDELi, alegazioak aurkez zitzaaten hilabeteko epean. Eta ia onartutako guztiak onartu dira.

Ondoren, Lide Amilibia andreak esan du bai Gipuzkoako Foru Aldundiak bai Eudelek beren alegazioetan adierazi dutela planean bildutako ekintza kopurua oso handia denez, uste dutela ezin gauzatu ahal izango dela pentsatutako aldian (2015-2018). Oso litekeena izanik gainerakoek ere iritzi bera izatea, beste proposamen bat aurkeztu du plan estrategikoaren iraupenaz, 2016-2019 aldian egin dadin, honako hau argudiatuta:

- 2015. urtea kentzen da, ia amaituta dagoelako, eta urte horretarako aurreikusitako ekintzak hobe da 2016tik aurrera kokatzea (adibidez, 2015ean gastu arrunt publikoa emendatzea bazterketa-esparruko erantzukizun publikoko zerbitzuetan; edo, 2015etik bultzatzea berriak diren edo gutxi garatuta (egonkortu gabe) dauden prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak). Zorroari buruzko Dekretuak 2015ean onartu izanak ez du arazorik sortzen. Onarpen-ekintza kentzen da, eta kito.
- Lehentasunezko ekintzek 2017. urtearen amaierarako amaituta egon beharko lukete, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema orokortzetik urtebete igarotzearekin batera. Gainerakoak 2019. urtearen amaierarako egin beharko dira, orduan bukatuko baita plana.

Proposamen berri horrekin, helburuen eta ekintzen kopurua mantentzea bermatzen dugu, bai eta plana, azken orduko murrizketa

baten ondorioz, bere planteamenduetan eskasa ez izatea ere, eta, bide batez, dauzkan edukiak gauzatuko direla ziurtatzen dugu. Plana ebaluatzeko txostenak egiteko uneak baino ez lirатеke aldatu behar izango.

Azkenik, plan estrategikoari dagokionez, Lide Amilibiak EUDElen idazkera-proposamen bat irakurri du. Izan ere, uste dute Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2015eko urriaren 14an onartutako funtsa aipatu behar duela planak. Idazkera hori bat dator 2014-12-19ko aktarekin, eta honako hau da:

"4. Eta 2015/12/31 baino lehen, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez, eta Zorroari buruzko Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian horretarako aurreikusitakoari jarraikiz, GZESA hedatzeko finantza-lankidetzarako formula bat ("funts" bat) eratzea aurreikusi da, eredu komunitarioaren eta lehen mailako arretaren garapenari, bereziki, laguntzearren.

Funtsa urte askotarako izango da, baina denbora-muga ez da aldeztu aurretik zehaztuko.

10 milioi euro izango ditu 2016. urtean udal-eskumeneko egonkortu gabeko zerbitzuentzat (berriak edo gutxi garatutakoak), eta 20 milioi euro 2017. urtean eta hurrengoetan.

Funtsa koefiziente bertikalez hornituko litzateke; hau da, % 70 (Eusko Jaurlaritza), % 30 (foru-aldundiak eta udalak) ezagunaren bidez. Dirua erakundeen artean banatu aurretik, 10.000.000 euroak edo 20.000.000 euroak –hurrengo urteetan– kendu lirateke, eta funts hori lurralde historikoen artean banatzeko garaian, koefiziente horizontalak hartuko lirateke kontuan. Gero, lurralde bakoitzak erabakiko luke barruan nola banatu bakoitzari dagokiona.

2016. urtean, udal-eskumeneko egonkortu gabeko zerbitzuetan (berriak edo gutxi garatutakoak) inbertsioak egiteko erabiliko da funtsa.

2017. urtean eta hortik aurrera, denbora-mugarik gabe, funtsa egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak garatzeko proiektuetara bideratuko da, foru-eskumenekoak nahiz udal-eskumenekoak izan.

Finantzaketa gastua benetan egiten duen administrazio publikoari emango zaio, zerbitzua edo prestazio ekonomikoa haren eskumenekoa izan ala ez izan."

Ondoren, hitz egiteko txanda ireki da, eta Isabel Sánchez andreak hartu du hitza lehendabizi. Esan du ados dagoela bai planerako proposatutako iraupenarekin, bai funtsari emandako idazkerarekin.

Josu Bergara jaunak ere adierazi du EUDELeko ordezkaritza ados dagoela Eusko Jaurlaritzak proposatutako guztiarekin, eta esan du foru-aldundiekin batera arituko direla lanean lurraldeetako gizarte-zerbitzuen mapak egiteko, eta funtsak lurralde bakoitzean nola banatu aztertzeke.

Angel Toña jaunak proposatu du funtsari buruzko testuaren laugarren paragrafoan "dirua" jarri beharrean "funtsa" jartzeko, bigarren esaldian. Onartu da proposamena, eta horregatik: "Dirua banatu baino lehen...", agertu beharrean: "Funtsa banatu baino lehen..." agertuko da.

Beatriz Artolazabal andreak planaren aldizkakotasuna aldatzea eskertu du.

Angel Toña jaunak esan du logikoa zela aldaketa hori, bai eta 2015. urteari ez lotzea ere, urte horretako abenduan egoki.

3. Nahitaezko txostena egitea desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen dekretuari buruz.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak adierazi du abenduaren 5eko 256/200 Dekretuak aparkatze-txartela arautzen duela desgaitasuna duten pertsonentzat, eta 2014ko abenduaren 24an 1056/2014 Errege Dekretua jarri zela indarrean, abenduaren 12koa, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela jaulkitzeko eta erabiltzeko oinarritzako baldintzak arautzen dituen, lurralde nazional osoan txartel hori berdinean erabiltzea bermatzeko. Errege-dekretu horren lehen xedapen iragankorrak dio administrazio publiko eskudunek urtebeteko epea izango dutela beren arauak errege-dekretuak xedatzen dituenetara egokitzeko.

Gehitu du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jakinarazteko ekarri duen dekretuak erabiltzeko betekizunak eta baldintzak biltzen dituela, bai eta txartelen titular diren pertsonen eskubideak eta betebeharrak ere, zeinak abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuan zehaztuta baitaude, eta, gainera, aldaketa berri hauek egiten dituela txartelaren onuradun diren pertsonen profilei dagokienez; zehazki, hiru kasu berri:

- Mendekotasun-egoeran dauden hiru urtetik beherako pertsonak sartu dira, baldin eta etengabe badaude beren bizi-funtzioetarako ezinbestekoak diren aparatu teknikoen mende (gurpil-aulki bereziak, arnasteko aparatuak...), edo 4. edo 5. mailako desgaitasuna badute (patologia larria edo oso larria).
- Desgaitasuna duten pertsonen elkarteak (Elkartean) eskatuta: eritasun pneurodegeneratiboak dituzten pertsonak. Postpolioa aipatu du adibide moduan (aurreko larunbata izan zen haren nazioarteko eguna)
- Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta: mendekotasun-egoeran dauden eta, balorazio-zerbitzuak emandako irizpenaren arabera, mugikortasun murriztua duten pertsona fisikoak.

Angel Toña jaunak, halaber, esan du dekretu berriaren testua Foru Aldundiei eta EUDELi bidali zitzaizela uztailaren 17an, alegazioak aurkez zitzaizaten, eta Irekian jarri zela, herritarren iritzia jasotzeko.

Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txostenaren ondoren, honako hauei bidaliko zaie, Gobernu Kontseiluan onartu baino lehen: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Aholku Batzorde Juridikoari.

Parte hartzeko txandari ekin zaio. Lehenik eta behin Josu Bergara jaunak hartu du hitza, eta esan du irailean alegazioak bidali zituztela, baina ez dakiela onartu ziren ala ez. Zerikusia zuten merkataritzagune urbanoetan zamañak egiteko inguruekin, isiltzearen zentzuarekin, zeina, bere ustez, ezestekoa izan behar baitu, sailean sortu beharreko erregistroarekin, txartelaren erabilera etetearekin, zeinari dagokionez epea ez baita zehaztu, eta abarrekin.

Era berean eskatu du Eusko Jaurlaritzako pertsonal juridikoari kontsultatzeko zer udalerritan eman behar den txartela pertsona juridikoen kasuetan.

Emilio Sola jaunak argitu du testua jarritako epea zabaldu ondoren abuztuaren amaieran jasotako alegazioen ondorioa dela. Esan du legegariak isiltasunaren gaia aztertu dutela, eta uste dutela positiboa izan behar duela besterik adierazi ezean, eta saileko zerbitzu juridikoak horri dagokionez emandako justifikazioa irakurri du. Gehitu du ez zela onartu udalek erregistroan sarrera izateari lotutako gaia. Lide Amilibiak hori azpimarratu du, eta esan du ez dagoela aurreikusita erregistro berri hori sortzea, ez baita erraz lortzen Gobernuan erregistro berriak sortzeko onarpena; izan ere, Aholku Batzorde Juridikoak, nola ugaritu diren ikusita, ez sortzeko aholkua eman du.

Mar Zabala andreak esan du ezen, udalerrri batean txartela bertan behera uzten bada, beste batean eska daitekeela, gero ez dela ezer gertatzen, eta hori kontrolatu beharko litzatekeela.

Emilio Sola jaunak adierazi du ezin dela dekretu bidez ezarri arau-hausteen eta zehapenen araubidea, lege bidez egin behar delako beti.

Angel Toña jaunak EUDELe pertsona juridikoaz egindako galdera gogorarazi du, eta Emilio Solak adierazi du errege-dekretu bidez sortutako aukera bat dela, eta horregatik errespetatu dela dekretu-proiektuan.

Bizkaiko diputatuak esan du tituluak pertsonari lotuta egon behar duela, eta ez beste ezeri. Zaila iruditzen zaio kontua zabaltzea; izan ere, uste du, udalek ez dute ahalmenik gaia kontrolatzeko.

Emilio Solak errepikatu du errege-dekretua errespetatu egin dela puntu honetan, eta saila errege-dekretutik harago joan dela hiru kasu berriak sartuta, baina aldi berean hartan aurreikusitako kasuei eutsita.

Mar Zabala andreak ez du argi ikusten zer udaletan eskatu behar duen enpresak txartel hori. Jakin nahi du erregistro-egoitza duen lekuan izango den, ala jarduera duen lekuan.

Emilio Sola jaunak dekretu-proiektuaren 3.5. artikulua irakurri du, gaiari buruzkoa.

Angel Toña jaunak uste du egoitza soziala duen lekuan izan behar duela. Lide Amilibia andreak esan du kontsulta juridikoa egingo dela horri buruz.

Alfonso Carlos Artola jaunak galdetu du ea kontuan hartu ziren egin zituen alegazioak.

4. Informazioa ematea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legeaz eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaz.

Angel Toña jaunak, lehenik eta behin, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legearen proiektua zer egoeratan dagoen jakinarazi du.

- Lege-proiektua 2015eko otsailaren 3an onartu zen Gobernu Kontseiluan, eta irailaren 17an Batzordean agertu zen legearen berri emateko. Bertaratutako beste pertsona eta entitate batzuk aipatu ditu. Zuzenketak aurkezteko epea amaitu da, baina ez dituzte bidali. Ez du arazorik ikusten lege hori onartzeko, adostasun handi samarra bildu baitu. Nolabaiteko parlamentu-oniritzia du. Testua interesa duenari bidal dakioke.

- Zorroari buruzko Dekretua ele bitan dago jada, eta aldizkarian argitaratzeko zain.

5. Eskariak eta galderak

Bizkaiko diputatuak dio Euskadiko Hirugarren Sektoreari buruzko Legea oso ondo hartzen ari direla gainerako autonomia-erkidegoetan.

Eta beste gairik ez zegoenez, Angel Toña jaunak amaitutzat jo du bilera 16:47an.

Akta hau Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren hurrengo bileran onartuko da behin betiko.

O.E.

ÁNGEL TOÑA GUENAGA

Presidente

EMILIO SOLA BALLOJERA

Idazkaria